

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

8362 *10/2014 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren, Defentsa Ministerioaren eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrekontuetan ezohiko kredituak eta kreditu-gehigarriak ematen dituena.*

Errege lege-dekretu honen xedea da Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren, Defentsa Ministerioaren eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrekontuetan ezohiko kredituak eta kreditu-gehigarriak ematea.

Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren aurrekontuan 9.346.490 euroko ezohiko kreditua ematen da, Espainiak Immunizaziorako Nazioarteko Finantzaketa Funtsean duen partaidetzaren 2014ko kuota ordaintzeko.

Espainia, 2006an, atxiki zitzaion Immunizaziorako Nazioarteko Finantzaketa Funtzari, eta, guztira, 189.500.000 euro hornitzeko konpromisoa hartu zuen, zein 20 kuotatan banatu baita, urteko bat. Ekimen horren xedea Txertaketetarako Aliantza Orokorra funtsez hornitzea da, immunizaziorako kanpainia masiboak egiteko eta munduan dagoen haurren heriotza-tasa jaisten laguntzeko.

Egungo urtealdian, 9.346.490 euro ordaindu behar ditu, eta ordaintzeko azken eguna 2014ko urriaren 31 da, atxikitze-akordioan ezarritako baldintzen arabera.

Aurreko urtealdietan, Garapena Sustatzeko Funtzaren (FONPRODE) kontura ordaindu izan da kuota hori; baina aurtan ezingo da horrela egin Estatuaren 2014rako Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 22/2013 Legearen 57. hiru artikulua xedatutakoa aplikatu behar delako, eta hark dioenez, funtsarekin eragiketa itzulgarriak baino ezingo dira egin.

Defentsa Ministerioaren aurrekontuaren kasuan, alde batetik, ezohiko kreditua ematen da, arma programa bereziei dagozkien ordainketa obligazioei aurre egiteko; eta bestetik, kreditu-gehigarriak, Indar Bateratuaren trebatzearekin eta bertan sartzearekin loturiko gastuak finantzatzeko.

Beraz, lehenengo eta behin, ezohiko kreditua ematen da Defentsa Ministerioaren aurrekontuan, arma programa berezien kontratuei loturiko obligazioen ordainketari aurre egiteko.

«Programa Bereziak» (PEA's) dira, ekonomiari dagokionez, bolumen handikoak eta/edo industria-komplexutasun handikoak direnak. Horiek hautatzeko orduan estrategia-politikei, ekonomiari, industriari eta teknologiarik loturiko beharren konbinazioa aintzat hartzen da; eta ezinbestekoak dira Indar Armatuak eta Espainiako industria-ehuna modernizatuko badira.

Programa berezien xedea da Espainiako Indar Armaturen beharrak asetzea, beren misioak burutzeko arma, ekipo eta laguntza-azpiegitura hoberenak hornituz:

– Espainiaren subiranotasunaren defentsarekin loturiko arrisku eta mehatxuei erantzun eta aurre egitea ahalbidetuko duen ekintza estandarra lortzeko beharra betetzen dute.

– Segurtasunerako eta Defentsarako Politika Erkidearen garapenari dagokionez, Lisboako Tratatuaren 28. artikuluan zerrendatutako eginkizunak betetzeko, Europar Batasuneko estatu kideek hartutako konpromisoekin bat datoz.

– Espainiak nazioarte mailan hartutako konpromisoei erantzuna ematen diete, hain zuzen, NATOren Defentsa Gaitasunen Ekimenaren bidez hartutakoak eta gerora «Pragako Gaitasunen Konpromisoak» izenez berriro definituak.

Programa bereziak finantzatzeko sistema Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ikerketa zein garapenera bideratutako aurrerakinetan oinarritutakoa da; erositakoen

ordainketa Defentsa Ministerioaren aurrekontuaren kontura egiten da, eta momentu horretan bertan fabrikatzaileak aurrerakinak itzultzen dizkio Altxor Publikoari.

Munduko ekonomiaren, eta, bereziki, Espainiakoaren, bilakaerak eragin du Estatuko aurrekontuaren hainbat ataletako finantza-baliabideak murriztea. Atxikitzeko eta/edo kontratatzeko akordioetan ordainketak egiteko hartutako konpromiso maila ministerio sailaren finantza gaitasunetik aldentuz joan da, bereziki Arma Programa Bereziei dagokienez. Horrek programazioak behin eta berriro aldatu beharra eragin du, aurreikuspenak egokitzeko. Kredituak lehentasun handieneko kontu-sailalara bideratu dira eta unitateen eraginkortasuna bermatzen duen gutxieneko mailari eustea bilatu da, arreta handiagoa emanez gatazka-eremuetan dauden indarrei eta horien segurtasuna bermatzen eta hobetzen duten bitartekoei.

Aurretik esandakoa gora-behera, aurrekontuko zuzkidura nahikoa ez izateak beharrezko egiten du kreditu-gehigarriak hornitzea, kontratuei loturiko konpromisoen ondoriozko finantza konpromisoak bete ahal izateko, hain zuzen, 883.655.368,60 eurokoak.

Ezohiko kredituak 2014 urtealdiaren programak finantzatzeko beharrak betetzen ditu, eta kontratuen ondoriozko zenbatekoak ordaintzea ahalbidetu, horrela enpresa kontratistekiko fakturak ordaintzeke gera daitezen ekiditen da.

Administrazioak nahitaez erantzun behar die kontratuei loturiko obligazioen ordainketari, gainera, ordainketa ez da atzeratuko, hirugarrenei kalterik ez eragiteko. Beraz, horiek dira errege lege-dekretu bidez ezohiko kreditua ematea justifikatzen duten ezohiko eta premiazko arrazoiak.

Ondoren, Defentsa Ministerioaren aurrekontuan kreditu-gehigarriak ematea du xede errege lege-dekretu honek, Indar Bateratua trebatzarekin eta bertan sartzearekin loturiko hainbat gastu ordaintzeko.

1/2012 Nazio-defentsari buruzko Zuzentarauak (DDN) testuinguru estrategiko orokorra azaltzen du, bai eta zuzentarauak Espainiaren nazio interesei nola eragiten dien ere; gure defentsa gaitasunetan krisiak izan duen kontrako eragina eta babes kolektiboen murizketa ere aipatzen ditu.

Haren 4.2 arauak xedatzen duenez, Indar Armaturen gaitasunak zaintzea zein haien eskuragarritasun gradua lehenetsiko dira, egoera berriarekin bat, prebenitzeko, arriskuen aurrean asmoa kentzeko eta ustezko mehatxuen aurrean erantzuna emateko.

Beharrezkoa da, beraz, Indar Armaturen diseinua inguruabar berrietara egokitzea, eta horretarako Indar Bateratuaren bidez jardun beharko dute; gaitasun espezifikoei erantzun dute Indar Bateratua, armadetan ezarritako eskuragarritasun graduaren arabera, bai eta armaden arteko gaitasunek ere.

Indar Armaturen erabilera kontzeptuari buruz Defentsarako Estatu Nagusiko buruak (JEMAD) emandako zuzentaruaren diseinatu da Indar Bateratua, eta gerora ezarri dira bertan sartzeko mailak.

Defizit publikoa urritzea xede zuten azken urteetako aurrekontuen murrizketak Estatuaren aurrekontuko baliabideak eta zuzkidurak gutxitzea ekarri du, hain zuzen, ministerioko sail guztiak eragin dituena. Austeritate esfortzu horretan lagundu du Defentsa Ministerioak, bateragarria baita Indar Armaturek beren esku utzitako eginkizunak era eraginkorrez bete ditzaten ahalbidetzen dien gaitasun eraginkorrari eustearekin.

Hala ere, azken urteetan konpartitutako austeritate esfortzuaren ondoren, hasierako aurrekontuko zuzkidurekin erantzuna eman ezin zaien hainbat behar, finkoak eta Indar Armatuak mantentzekoak, daude, Indar Bateratua osatzen duten unitateak barne.

Gaur egun, ekintzetara hedatuko diren unitateetan sartzeari baino ezin zaio eman erantzuna dagoen aurrekontuko zuzkidurarekin, eta hedatu gabe gelditzen diren Indar Armaturetako unitateak trebatzeko, mantentzeko eta berritzeko planak, berriz, kaltetuak gelditzen dira; are gehiago, unitate horien eskuragarritasun eta ekintza gaitasuna eragin dezake gabezia horrek, zeharka bada ere, ekintzetan hedatzeko beharrezko diren kosteak igotzen baititu.

Muga horiek Indar Bateratuan beharrezkoa den sartzeari eragoz dezaten ekiditeko eta Defentsa Nazionalaren 1/2012 Zuzentaruaren 4.2. arauak xedatutakoa bete dadin ahalbidetzeko zein Segurtasun Nazionaleko 2013 Estrategiaren helburuak lortzeko,

Defentsa Ministerioaren aurrekontuko zuzkidurak handitu behar dira, errege lege-dekretuaren bidez; izan ere, kreditu-gehigarria eman dadin justifikatzen duen ezohiko eta premiazko beharra baitago.

Bukatzeko, ezohiko kreditua –10.000.000 euro– ematen da Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrekontuan, minden kudeaketa alternatiboarekin loturiko jardunak burutzeko.

Txerri-ekoizpenaren abeltzaintza sektoreak duen ingurumen arazo nagusia dira mindak. Minden zatirik handiena ongarrri gisa baliatzen da, zuzenean lurrera botata. Dena den, txerri-ekoizpenaren kontzentrazioa handia den tokietan ez da posible kudeaketa hori, bertako lurra ezin baitu bere ingurunean sortzen den minda guztia hartu. Egoera bereziki larria da nitratoen kutsaduragatik ahul direla aitortu zaien tokietan; horietan minda ongarrri gisa erabiltzeko mugak zorrotzagoak dira, uren –kontinentalak zein itsasertzekoak– kutsadura prebenitzeko zein zuzentzeko, hain zuzen, nekazaritza jatorriko nitratoek eragindako kutsadura zuzentzeko. Lurraren ongarrri gisa erabili ezin diren mindak kogenerazioaren bidez lehortzeko lantegietan landu izan dira, araubide ekonomiko berezia zuten lantegiak baitira.

Baina, ekonomia eragimenaren irizpidearekin bat, eta minden tratamendurako lantegiei kogenerazioaren araubidea aplikatzeak duen kostu handia aintzat harturik, egokiago jotzen da Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak abian jarriko duen neurri alternatiboa finantzatzea.

Epe motzerako konponbide zehatza behar da ingurumena kutsatzeko arriskuak arinduko badira; hori dela-eta, minden kudeaketa alternatiborako jardunak landu beharko dituzte autonomia-erkidegoek, eta jardun horiek finantzatzeko, hain zuzen, ematen da, errege lege-dekretu honen bidez, ezohiko kreditua.

Hori guztia Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekin lortutako akordioaren zein Nekazaritza-sektorearen eta Landa Garapenaren Arloko Batzarrean egindako haren formalizazioaren esparruaren baitan gauzatzen da, eta Aurrekontuen Lege Orokorraren 86. artikulua autonomia-erkidegoek kudeatutako kredituei buruz xedatutako aurreikuspenekin bat.

Horregatik guztiagatik, Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Ogasun eta Herri Administrazioako ministroak proposatuta, Estatu Kontseiluarekin bat etorritz eta Ministro Kontseiluak 2014ko abuztuaren 1eko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. *artikulua. Ezohiko kreditua ematea Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren aurrekontuan.*

Espainiak Inmunizaziorako Nazioarteko Finantzaketa Funtsan duen partaidetzagatik 2014an ordaindu behar duen kuota ordaintzeko, ezohiko kreditua –9.346.490 euro– ematen da indarrean den honako aurrekontuan: 12. atala «Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioa», 03. zerbitzua «Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarentzako Estatu Idazkaritza», 143A programa «Garapenerako lankidetzeta», 4. kapitulua «Transferentzia arruntak», 49. artikulua «Kanpora», 496 kontzeptua «Inmunizaziorako Nazioarteko Finantzaketa Funtsa».

2. *artikulua. Ezohiko kreditua eta kreditu-gehigarriak ematea Defentsa Ministerioaren aurrekontuan.*

1. Ezohiko kreditua baimentzen da –883.655.368,60 euro– indarrean den honako aurrekontuan: 14. atala «Defentsa Ministerioa», 03. zerbitzua «Defentsako Estatu Idazkaritza», 122B programa «Modernizazio Programa Bereziak», 6. kapitulua «Inbertsio errealak», 65. artikulua «Inbertsio militarrek azpiegitura eta beste ondasun batzuetan», 658 kontzeptua «Arma programa berezietan dagozkien obligazioak ordaindu ahal izateko». Hona hemen xehetasunak:

Azpikontzeptua	Izena	Zenbatekoa (euroak)
658.01	EF-2000 hegazkina	430.529.111,26
658.02	A-400M hegazkina	143.092.597,78
658.03	Pizarro delako ibilgailua	55.000.000,00
658.04	Tigre delako helikopteroa	144.263.170,00
658.05	Tankeen aurkako SPYKE misila	22.891.579,84
658.06	NH-90 helikopteroa	85.800.174,72
658.07	EC-135 helikopteroa	2.078.735,00
	Guztira	883.655.368,60

2. Kreditu-gehiarriak –30.560.000 euro– baimentzen dira indarrean den honako aurrekontuan: 14. atala «Defentsa Ministerioa», I. eranskinean jasotako xehetasunekin bat.

3. *artikulua. Ezohiko kreditua ematea Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrekontuan.*

Minden kudeaketa alternatiboarekin loturiko jardueren garapena finantzatzeko, ezohiko kreditua –10.000.000 euro– ematen da honako aurrekontuan: 23. atala «Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa», 01. zerbitzua «Ministerioa, Idazkariordetza eta Zerbitzu Orokorrak», 451O programa «Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Arloko Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak», 751 kontzeptua «Autonomia-erkidegoei, minden kudeaketa alternatiborako».

4. *artikulua. Finantzaketa.*

1. Errege lege-dekretu honen bidez Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren zein Defentsa Ministerioaren aurrekontuan emandako ezohiko kredituak zor publikoarekin finantzatzeko dira. Halaber, zor publikoaren bidez finantzatzeko dira Defentsa Ministerioaren aurrekontuan ematen diren kreditu-gehiarriak.

2. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aurrekontuan eman den ezohiko kreditua 20. atalaren –Industria, Energia eta Turismo Ministerioa– aurrekontu ez-finantzarioen kredituen bajaren bidez finantzatzeko dira, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 55. artikulua xedatutakoarekin bat; eta ondoren jasotzen diren aplikazioen xehetasunekin eta zenbatekoekin bat:

	Zenbatekoa – Euroak
<i>12. zerbitzua «Telekomunikazioetako eta Informazio-gizarterako Estatu Idazkaritza»</i>	
467G programa. «Informazio-gizarteari buruzko ikerketa eta garapena».	
640 kontzeptua. «Materialetarako ez diren inbertsioen gastuak»	600.000
467I programa. «Telekomunikazioen berrikuntza teknologikoa».	
640 kontzeptua. «Materialetarako ez diren inbertsioen gastuak»	400.000
749 kontzeptua. «Espainiako Agenda Digitala»	1.200.000
491M programa. «Telekomunikazioen eta informazio-gizartearen antolamendua eta sustapena».	
620 kontzeptua. «Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari loturiko inbertsio berria»	1.000.000

	Zenbatekoa – Euroak
<i>18. zerbitzua. «Energiaren Estatu Idazkaritza»</i>	
425A programa. «Energiari buruzko araudia eta garapena».	
640 Kontzeptua. «Materialetarako ez diren inbertsioen gastuak»	4.000.000
000X programa. «Barne-transferentziak».	
712 kontzeptua. «Ikatz-meatzaritzaren berregituraketarako eta meatzaritzako eskualdeen garapen alternatiboko institutuari»	2.800.000

3. Aurreko puntuan jaso den «Ikatz-meatzaritzaren berregituraketarako eta meatzaritzako eskualdeen garapen alternatiboko institutuari» izeneko 20.18.000X.712 kreditua gutxitzeak ondorioak izango ditu «Ikatz-meatzaritzaren berregituraketarako eta meatzaritzako eskualdeen garapen alternatiboko institutua» izeneko 20.101 erakunde autonomoaren aurrekontuan, honakoak, hain zuzen:

Diru-sarrereren aurrekontua.

Baja:

Aurrekontuaren aplikazioa	Zenbatekoa – Euroak
20.101.700. Atxikita dagoen sailarena.	2.800.000

Gastuen aurrekontua

Baja:

Aurrekontuaren aplikazioa	Zenbatekoa – Euroak
20.101.457M.751. Ikatz-meatzaritzako eskualdeen ekonomia suspertzea	2.800.000

Azken xedapen bakarra. *Indarrean sartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean sartuko da indarrean.

Madriren, 2014ko abuztuaren 1ean.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea
MARIANO RAJOY BREY

I. ERANSKINA

Ematen diren kreditu-gehirriak

14. atala. Defentsa Ministerioa

02. zerbitzua. Defentsako Estatu Nagusiaren Kuartel Nagusia

Programa	Kontzeptua/ Azpikontzeptua	Izena	Zenbatekoa – Euroak
121M	221.03	Hornigaiak. Erregaia	100.000
	226.06	Hainbat gastu. Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak	100.000
	230	Dietak	750.000

03. zerbitzua. Defentsarako Estatu Idazkaritza

Programa	Kontzeptua Azpikontzeptua	Izena	Zenbatekoa – Euroak
121M	220.02	Bulego-materiala. Material informatiko inbentariaezina . .	7.760.000
122M	230	Dietak	1.100.000

12 zerbitzua. Lehor-armada

Programa	Kontzeptua Azpikontzeptua	Izena	Zenbatekoa – Euroak
121M	226.06	Hainbat gastu. Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak	38.500
	227.99	Beste enpresa eta profesionalen burututako lanak. Beste	169.668
	230	Dietak	2.580.298
	231	Lokomozioa	406.422
122M	221.03	Hornigaiak. Erregaia	1.813.850
	221.05	Hornigaiak. Elikagaiak	120.000
	223	Garraioak	1.721.262

17. zerbitzua. Armada

Programa	Kontzeptua Azpikontzeptua	Izena	Zenbatekoa – Euroak
121M	230	Dietak	700.000
122M	221.03	Hornidurak. Erregaia	5.200.000
	223	Garraioak	100.000
	227.15	Kanpoko enpresa eta profesionalen burututako lanak. .	200.000
122N	216	Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	300.000

22. zerbitzua. Aireko armada

Programa	Kontzeptua Azpikontzeptua	Izena	Zenbatekoa – Euroak
122M	221.03	Hornigaiak. Erregaia	6.200.000
	226.06	Hainbat gastu. Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak	600.000
	230	Dietak	600.000
Kreditu-gehiarriak, guztira.			30.560.000

Eranskin honetan jasotako programen zerrenda:

- 121M Defentsaren administrazioa eta zerbitzu orokorrak
- 122M Indar Armatuen gastu operatiboak
- 122N Laguntza logistikoa